Lan-eskaintzen erregistroa 2021eko uztailean

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2021eko uztailean Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 932 izan da, ekainean baino 359 gutxiago eta joan den urteko uztailean baino 215 gehiago. Egunean bataz bestez 42 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino 16 eskaintza gehiago egunean.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2021eko uztailean 151 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 391 Gipuzkoan eta 390 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 42,0 Gipuzkoako KAUetan erregistratu dira, % 41,9 Gipuzkoan eta % 16,2 Araban.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 20,5 murriztu dira eskaintzak (39 eskaintza gutxiago); Gipuzkoan % 25,1 murriztu dira eskaintzak (131 gutxiago) eta Bizkaian % 32,6 (189 gutxiago).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 45 eskaintza gehiago erregistratu dira, % 42,3ko hazkundea, Gipuzkoan % 33,0 hazi dira (97 eskaintza gehiago), eta azkenik, Bizkaian % 23,0 hazi dira (73 eskaintza gehiago).

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. % 21,2a hirugarren sektoreko profilerako erregistratu dira (198 eskaintza); eta, % 17,7a zientzia teknikarien profilerako (165 eskaintza). Industriako langileen, tekniko laguntzaile eta kualifikatu gabeko profilen lan eskaintzek, ere, pisu nabarmena dute; 159, 136 eta 119 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak, lehen sektorekoak eta zuzendariak izan dira, 4 eskaintza bi kasuetan.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, eskaintza guztiak murriztu dira. Balore absolutuetan gehien murriztu den profila laguntza teknikariena izan da (127 eskaintza gutxiago, % 46,3ko murrizketa). Balore absolutuetan, aldiz, lehen sektoreko profileko eskaintza izan dira gehien murriztu direnak (% 50eko murrizketa, 4 eskaintza gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, eskaintza guztiak hazi dira zuzendarienak izan ezik; hauek 4 eskaintzatan murriztu dira (% 50eko murrizketa). Balore absolutuetan, hirugarren sektoreko profileko eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (56 eskaintza gehiago, % 39,4ko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, lehen sektoreko profilekoak izan dira (% 300ko hazkundea, 3 eskaintza gehiago).

• KONTRATU MOTA



Erregistratutako lan-eskaintzen % 15,6k kontratu mugagabea eskaini dute; % 84,1ek, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,3ak, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 145 izan dira, aurreko hilabetean baino 2 eskaintza gutxiago. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 357 eskaintza gutxiago erregistratu dira: 784 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan hazkundea % 31,3koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2021eko uztailean 3 izan dira, aurreko hilean bezain beste.

Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 50 gehiago izan dira (% 52,6ko hazkundea), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 26,7hazi dira; 165 eskaintza gehiago, eta, merkataritzako kontratuak, aldiz, kopuru berdina erregistratu da.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA



2021eko uztailean erregistratutako lan-eskaintzen 3 laurdenek (708 eskaintza, % 76,8) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 15,1ek (141 eskaintza) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 1,9ko pisua dute (18 eskaintza) eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenen pisua % 0,4koa da (4 eskaintza).

Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza guztiak murriztu dira, 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenak salbu; hauen kasuan, eskaintza bat gehiago erregistratu da (% 33,3ko hazkundea). Gehien murriztu direnak, balore absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko denbora eskatzen duten eskaintzak izan dira (284 eskaintza gutxiago, % 28,6ko hazkundea); aldiz, balore erlatiboetan, 1 eta 3 urte arteko esperientzia eskatzen duten eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak (% 40,3ko murrizketa, 46 eskaintza gutxiago).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, 6 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira hazkunde handiena izan dutenak balio absolutuetan (187 eskaintza gehiago, % 35,9ko hazkundea); balore erlatiboetan, ordea, 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen duten eskaintza izan dira gehien hazi direnak (% 53,3ko hazkundea, 49 eskaintza gehiago). Beste muturrean aurkitzen dira 1 eta 3 urte arteko esperientzia eskatzen duten eskaintzak, gehien mu-

rriztu direnak izan baitira balore absolutuetan (14 eskaintza gutxiago, % 18,7ko murrizketa); balore erlatiboetan, aldiz, 3 eta 5 urte arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira gehien murriztu direnak (% 25eko murrizketa, 6 eskaintza gutxiago).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 6 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hilean baino hilabete bat gutxiago.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 15,7k zehazten du datu hori (932 eskaintzetatik 146). 146 eskaintza horietatik, 111 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 35ek, lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 69 gutxiago izan dira ekainarekin alderatuz, hau da, % 35,1 hazi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak, berriz, 4 gehiago izan dira; hazkunde erlatiboa % 12,9koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 3 gehiago izan dira (%2,8ko hazkundea), eta lanaldi partzialeko kasuan, 10eskaintzakoa izan da hazkundea (% 40,0ko hazkundea).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 13 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 5 eskaintza gehiago, eta 2020ko uztailean baino 13 gehiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 87,2k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 932 eskaintzetatik 119k soilik zehaztu dute.



119 eskaintza horietatik, 48 LHko prestakuntza maila eskatu dute; ikasketa maila hau duten eskaintzak izan dira ugarienak. Ondoren, unibertsitateko eta oinarrizko ikasketa mailak eskatzen dituztenak daude, 37 eta 29 eskaintza erregistratu dira, hurrenez hurren. Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (5 eskaintza).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, eskaintza mota guztiak murriztu dira, ikasketa maila edozein dela ere. LHko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak, bai balore absolutuetan bai balore erlatiboetan (32 eskaintza gutxiago, % 40,0ko murrizketa.

2020ko uztailarekin alderatuz, eskaintza mota guztiak hazi dira unibertsitatekoak izan ezik, hauen kasuan 6 eskaintza gutxiago erregistratu dira (-%14,0). LHko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira gehien hazi direnak balore absolutuetan (6 eskaintza gehiago, % 14,3ko hazkundea); aldiz, balore erlatiboetan, Batxilergoko ikasketak eskatzen dituzten eskaintza izan dira gehien hazi direnak (% 66,7ko hazkundea, 2 eskaintza gehiago).

- **ESKAINTZAREN JARDUERA**

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena manufaktura-industria izan da; honen pisua eskaintza guztien % 14,7koa izan da (137 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera batzuk, merkataritza, osasun jarduerak eta administrazio jarduerak izan dira, eskaintzen % 13,2, % 11,1 eta % 10,1eko pisuarekin (123, 103 eta 94 lan-eskaintza, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz eskaintza gehienak murriztu dira. Balio absolutuetan gehien murriztu direnak manufaktura-industriako eskaintzak izan dira (112 eskaintza gutxiago, % 45,0eko murrizketa); aldiz, balore erlatiboetan, bilakaera okerrena izan dutenak Administrazio Publikoko eskaintzak izan dira (% 47,7ko murrizketa, 31 eskaintza gutxiago). Bilakaera onena eduki dutenak, balore absolutuetan, osasun jarduerakoak izan dira (12 eskaintza gehiago, %13,1eko hazkundea); aldiz, balore erlatiboetan, ur-hornidurako eskaintza izan dira gehien hazi direnak (% 18,eko hazkundea, 2 eskaintza gehiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, ia eskaintza guztiak hazi dira ere; salbuespenak etxebizitzak langile enplegatzaile gisa (18 eskaintza gutxiago), jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak (-9), hezkuntza (-8) eta higiezinen jarduerak izan dira (4 eskaintza gutxiago). Bilakaera hoberena izan duten eskaintzak, balore absolutuetan, manufaktura-industriakoak izan dira (54 eskaintza gehiago, % 65,1eko hazkundea); balore erlatiboei erreparatuz, aldiz, ostalaritzako eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (% 84,9ko hazkundea, 28 eskaintza gehiago).